

2. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira, Gipuzkoako Diputaziora, 1959 agustuaren 20-an baiño leen, makiñaz idatzirik eta lerro-une bat utzirik. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.
3. Batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du.

**«LORAMENDI» FR. JOAQUIN BEDOÑA-KOAREN GORAZARREZ
EUSKALTZAINDIAK ANTOLATUTAKO LITERATURA-SARI-
KETAREN ERABAKIA**

«Donostian bildurik Aita Joakin Bedoña-koaren gorazarrez jarri zan literatura-sariketarako Euskaltzaindiak izendatu zuen batzarrea, ao batez erabaki da:

Poesia.—Lendabiziko saria, bi milla pesetakoa, «Maldan behera» poemari ematea. Egillea Gabriel Aresti (Bilbo); bigarrena, milla pesetakoa, «Lelo xamurrak» Fr. Victoriano Gandiaga-k (Arantzazu) egindakoari; bosteun pesetako sari bi urrengo jaun auk bialdu dituzten poesia: Fernando Artola «Bordari» (Ondarrabia) eta Aita Policarpo Iraizoz-koa (Erroma).

Itz lauz.—Lendabiziko saria, milla pesetakoa, «Loramendi eta bere garaiko euskal-literaturaz» egindako lanari. Egillea Luis Jauregui jauna (Zarautz); bigarren saria, bosteun pesetakoa, Aita Julian Iyorre-koak gai bera duela bialdutako lanari.

Teatroa.—Lendabiziko saria, bi milla ta bosteun pesetakoa, «Kanpaien atsekabez» tituludun lanari, Eusebio Erquiaga-k (Bilbo) bialdua; bigarrena, milla ta bosteun pesetakoa, «Leniz'ko alaba» Jose Antonio Arcocha Martija-k (Ondarru) bialdutako lanari.

Batzarreak bere poz aundia jakinerazi nai du artu diran lan ugari eta ederrengatik, batez ere poesia arloan. Irurogeitik gora dira. Sarituez gaifera uste du aipamen berezi bat merezi dutela urrengo poesia auk: «Izar eta odei» Antonio Bilbao (Morga), «Sei olerki» Jaime Querexeta (Elorrio), «Lizardi-renean» J. Ignacio Goicoechea (Tolosa), «Egun txintatik arratseraño» A. Eusebio Igarza, O. S. B. (Lazkao), «Bedoña'rako osto bikoitza» Eusebio Erquiaga (Bilbo), eta baita teatro lan bi auk; «Bertsolari sariketa» eta «Berpizkunde goizean», biak Manuel Zirasolo-renak (Bilbo).

Donostian, 1959 irailaren 13-an. Firmatzaillak: Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray eta Luis Michelena.»

EUSKALTZAINDIAK URTERO EGIN OI DUEN JAIALDIA

Ilbeltzeko 4-an Euskaltzaindiak Bilboko Arriaga Teatroan urtero bezela jaialdi bat egin du, sarrera bakar bat ere gelditu etzelarik salgai eta gaifera jente asko ta asko ikusi gabe. Oraingoan euskaldun guztien begien bistan jarri nai izan du bertsolariak, euskal-teatroa eta euskal-kantak izkuntza indartzeko eta sendotzeko bide oso onak dirala. Eta badirudi asko aurreratu dala. Ain zu-